

## **ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA**

### **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

**2023-2024 denboraldia**  
**(2023/10/02tik 2024/09/29ra)**

#### **5. astea (2024/01/29-2024/02/04)**

***Gripe-birusaren zirkulazioak behera egin du berriro aste honetan. COVID-19aren intzidentzia ere jaitsi da eta ABSren detekzioek eta bronkiolitis diagnostikoek gora egin dute.***


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 468,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (516,3/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak beherantz jarraitzen du eta bronkiolitisarenak gora egin du aste honetan epidemia ondorengo ohiko fluktuazioen barruan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 62 lagin jagoleen % 51,6 baieztatu da, 6 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 9,7), 13 gripe-birus (positibotasuna % 21,0) eta ABS bat (positibotasuna % 1,6) atzeman direlarik.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 15,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,9/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 110 SARS-CoV-2, 269 gripe-birus eta 69 ABS erregistratu dira.

## AIA Lehen Mailako Arretan

### Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 468,2 kasukoa izan da (516,3/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 352,0/100.000 izan da Araban, 486,2/100.000 Bizkaian eta 493,3/100.000 Gipuzkoan.

**AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE**



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2043,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 865,2 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasak gora egin du berriro 5-14 urteko adin-taldean eta behera gainontzekoetan.

**AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute berriro ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


**AIAREN INTZIDENTZIA-TASAK ETA TASEN ARRAZOA ESIAREN ETA ASTE EPIDEMIOLOGIKOAREN ARABERA. LEHEN MAILAKO ARRETAKO SAREA. 2023-2024, EAE**

ESI	Tasa 5. astea	Tasa 4. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	390,6	443,0	0,88 (0,81-0,96)
Arabar Errioxako ESI	443,1	536,8	0,83 (0,57-1,19)
Barakaldo-Sestaoko ESI	397,2	453,0	0,88 (0,78-0,99)
Barrualde-Galdakaoko ESI	498,8	530,0	0,94 (0,88-1,01)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	530,6	546,0	0,97 (0,91-1,04)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	515,3	545,2	0,95 (0,86-1,04)
Uribeko ESI	392,6	421,5	0,93 (0,85-1,02)
Bidasoako ESI	423,1	436,1	0,97 (0,83-1,13)
Debarrenako ESI	500,8	625,0	0,80 (0,70-0,92)
Debagoienako ESI	370,6	426,9	0,87 (0,73-1,03)
Donostialdeako ESI	482,3	565,4	0,85 (0,80-0,91)
Goierrri-Urola Garaiako ESI	574,8	621,8	0,92 (0,82-1,04)
Tolosaldeako ESI	491,6	616,1	0,80 (0,69-0,92)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du berriro aste honetan eta 26,6 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (41,1/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du aste honetan epidemia ondorengo ohiko fluktuazioen barruan eta 256,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (197,6/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoen arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



## Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 62 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 51,6 baieztatu dira. 6 SARS-CoV-2, 13 gripe-birus (4 AH1pdm09 eta 9 AH3) eta ABS bat atzeman dira. 5 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoen arabera. 2023-2024, EAE**



SARS-CoV-2rako positibotasunak gora egin du eta % 9,7an kokatu da (% 1,3 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak ere gora egin du eta % 21,0an kokatu da (% 18,7 aurreko astean), eta ABSrena % 1,6an mantendu da (% 1,3 aurreko astean). Urtaroko koronabirusaren positibotasuna % 8,1ekoa izan da (% 12,0 aurreko astean).


**Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE**

	5. astea		4. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	13	21,0	14	18,7	210	20,6
SARS-CoV-2	6	9,7	1	1,3	64	6,3
ABS	1	1,6	1	1,3	84	8,2
Metaneumobirus	4	6,5	9	12,0	31	3,0
Parainfluenza	0	0,0	0	0,0	18	1,8
Adenobirus	1	1,6	3	4,0	25	2,5
Errinobirus	4	6,5	12	16,0	214	21,0
Urtaroko CoV	5	8,1	9	12,0	44	4,3

## AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


### Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 15,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,9/100.000 aurreko astean), 15,6/100.000 emakumeetan eta 14,8/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 43,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 19,3 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 15 urtetik beherakoetan eta 45-64 urteko adin-taldean.

### AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




## AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du berriro eta % 20,0an kokatu da aste honetan (% 23,1 aurreko astean) eta SARS-CoV-2rena % 3,4ra jaitsi da (% 7,7 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 11,6ra igo da (% 8,2 aurreko astean) eta errinobirusarena % 16,7koa izan da.

**Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE**

	5. astea		4. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	266	3,4	285	7,7	5405	10,8
Influenza	265	20,0	286	23,1	5078	21,9
ABS	225	11,6	255	8,2	4226	17,3

**Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE**



## Arnas birusen detekzioak IMSn


Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 110 SARS-CoV-2, 269 gripe-birus eta 69 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 269 gripe-birusetatik, 186 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 31 A(H3), 51 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2023/40 astetik 5533 detekzio erregistratu dira, 5521 (% 99,8) A motakoak eta 12 (% 0,2) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1676 birusetatik, 333 (% 19,9) A(H3) eta 1343 (% 80,1) A(H1)pdm09 izan dira.

2023-24 denboraldian, Influenza AH1p birusaren 181 anduitan oseltamivirrarekiko sentikortasuna aztertu da Donostiako Unibertsitate Ospitaleko mikrobiologia-laborategian, eta 2 andui erresistente detektatu dira (% 1,1). Ospitale horretan ingresatutako 76 eta 84 urteko bi emakume dira. Antzaenez, ez zuten oseltamivir bidezko tratamendurik jaso.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, urtarrilean, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2ren lagin positiboen % 19,1 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 90,2), BA.2.86 (% 3,9) eta JG.3 (% 2,0) izan direlarik.

### Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




### COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 5. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 11,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (26,6/100.000 aurreko astean); 10,7 gizonetan eta 12,7 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 42 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik<sup>1</sup> (45 ospitaleratu aurreko astean), 18 gizon eta 24 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 81,0 60 urtetik gorakoa zen.

### COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



<sup>1</sup> Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 5. astean, COVID-19 11 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (15 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 9 izan da, aurreko astean baino 4 gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

**2024ko otsailaren 7an**

**Zaintza Epidemiologikoa  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**